

# Emakumeen aurkako eraso matxistarik gabeko kultur gune baterantz

**HAUSNARTZEKO ETA JARDUTEKO GIDA**

**2022ko ekaina**



**EUSKO JAURLARITZA**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES

Izenburua: Emakumeen aurkako eraso matxistarik gabeko kultur gune baterantz. HAUSNARTZEKO ETA JARDUTEKO GIDA. 2022ko ekaina.

Argitaratzailea: EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erankundea.  
Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz.

Diseinu eta maketazioa: GEN creativo.

# EDUKIA

<b>Sarrera</b> .....	4
<b>1. Aisiak eta jai eta kultura guneek ere arauak dituzte</b> .....	6
<b>2. Aurrerapenak legegintzan</b> .....	10
<b>3. Erasoak kultura ekitaldien esparruan</b> .....	11
<b>4. GUZTIOK GOZATZEKO GUNE SEGURUAK ERAIKITZEN</b> .....	13
4.1. Indarkeria formak.....	13
4.2. Arrisku guneak jaialdietan eta makrokonzertuetan.....	17
<b>5. PROPOSAMENAK</b> .....	18
5.1. Protokoloak sortzea.....	18
5.2. Prebentzioa.....	19
5.3. Detekzioa.....	19
5.4. Arreta.....	20
5.5. Erantzun publikoa.....	21
5.6. Berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko jokabide kodeen sortzearen alde pausuak ematen.....	22
<b>ERANSKINA: Prebentzio kanpainak ERRESUMA BATUAN,                   AEBetann eta KANADAN</b> .....	23

## Sarrera

Dokumentu hau Sortzen konsultoriaren laguntzarekin eta sektoreko erakunde batzuekin kontrastaturik, hasierako gogoeten gida da kultura ekitaldietan emakumeen aurkako sexu erasoak adierazteko moduei buruz hausnartzeko. Gogoeta horietatik proposamen sorta bat ondorioztatzen da kultura arloan eraso horiei aurrea hartzeko, arreta emateko eta erantzuteko bidea egin ahal izateko. Jakin badakigu kultura ekitaldi bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela, eta hain zuzen ere horrexegatik egin dira dokumentu honetan ondoren ekitaldi bakoitzari egokitutako eta doitutako neurriak garatzen lagundu dezaketen gogoeta orokor hauek.

Ondasun garrantzitsua izateaz gain, eskubide bat da kultura, izaera sinboliko handia du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eraikuntzan hedapen masiboa duelako eta, bizitza publikoaren beste esparru batzuetan bezala, etengabe lan egin behar den eremua delako emakumeen eta gizonen artean, eta horien arteko harremanetan, estereotipo sexistak ez birsortzeko.

Berdintasunaren aldeko lanean, funtsezko lekua dute beronen adierazpen gorenaren, indarkeria matxistaren aurkako jarduerak, eta beraz, behar-beharrezkoa da indarkeria mota horri modu espezifikotan heltzea eta arlo guztietan aurrea hartzeko edo prebenitzeko jardutea. Emakumeen aurkako indarkeria matxista arazo estrukturala, sinbolikoa eta pertsonen artekoa da, eta faktore hauek elkar elikatzen dute. Hala, pertsonen arteko harremanen esparruan jarduteko neurriak, funtsezkoak izanik, ez dira nahikoak. Arlo sinbolikoa eta egiturazkoa ere landu behar dira, alderdi hauek ez baitira hain agerikoak genero-ikuspegitik aztertzen ez badira.

Aisia guneak eta jai eta kultura ekitaldiak gizarte-ekintzarako eta -erreproduktiborako guneak dira, eta berauetan ere emakumeak dira indarkeria matxistaren biktima nagusiak, bai pertsonen arteko mailetan bai maila sinbolikoetan. Alderdi sinbolikoa kulturaren sektorearen inplikazioa eskatzen duen arloa da, eta lan asko egiteko dagoen arren, pertsonen arteko adierazpenei dagokienez, bereziki eraso sexual eta/edo sexistak gertatzen diren formei dagokienez, neurri batzuk abian jartzeko proposamena egin nahi dugu, horiei aurrea hartzeko.

Jakin badakigu gune horietan beste eraso mota batzuk gertatu daitezkeela, parte hartzaile guztiei eragiten dietenak, baina emakumeei modu eskusiboan edo neurritz kanpo eragiten dieten gogoetetan eta proposamenetan jarriko dugu arreta. Izaera operatiboa du erabaki horrek. Behar-beharrezkoa da emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko analisia gero eta zehatzagoa izatea emakumeen aniztasuna eta indarkeria matxistaren biktima diren kolektiboak aintzat har ditzan, sektore eta ekitaldi mota bakoitzari erantzun egokiak emateko.

Jai eremuetan eraso sexualen prebentzioa landu da emakumeek gune horietan gizonen baldintza berberetan gozatu ahal izan dezaten lortzeko. Kultura ekitaldiek beren bidea egin behar dute.

Datozen orrialdeetan azaltzen diren gogoetak eta proposamenak kulturagintzara egiten den lehen hurbilketa dira, desberdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko hausnarketan garapen desberdina aitortzen diogun kulturaren sektore anitzera. Oraindik ez da momentua bete beharreko protokoloa proposatzeko; kulturaren sektorearekin hitzartu nahi den konpromisoa osatzen dute, proposatzen diren neurrietako batzuk pixkanaka txertatu ahal izan daitezten eta egiten den ekitaldi bakoitzari egokitutako protokoloak landu ahal izan daitezten.

2022ko maiatzean aurkeztu zen dokumentu honen zirriborro bat kulturaren esparruko 14 entitaterekin: aho batez adierazi zuten gisa honetako jarduera bat jada behar-beharrezkoa zela. Erasoak ekitaldi guztietan gertatu ez direla aitortu bazuten ere, halakoak eragozteko prebentzio neurrietan sakontzeko beharra planteatu zuten, eta harago egitea jokabideen kode etikoen eraikuntzan, jokabide horiek ez baitute beti ikus-entzuleekin zerikusirik, bai ordea artistekin eta ekitaldi horietan lan egiten duten lagunekin.

Azken dokumentuan proposamen batzuk jaso dira, jakinda hausnarketan eta ekintzetan sakontzeko bide bat hasten dela, eta horrekin batera prestakuntza, aholkularitza eta laguntza teknikoa eman behar direla, gogoeta horiek sektoreko ekitaldien beharretara benetan egokitu daitezten. Beharrezkoa eta erabilgarria delako konfiantzarekin ekingo diogu elkarrekin bide honi.

# 1. Aisiak eta jai eta kultura guneek ere arauak dituzte

*“Gizarte egintza petoak dira jaiak, eta kultura sistemen adierazpen argi bat. Jaietan islatzen, biltzen eta gurutzatzen dira gizarte, herri edo komunitate jakin baten ezaugarri guztiak, baita askotariko gizarte ikuspegiak eta proiektuak ere”<sup>1</sup>. Gizarteratzeko, ihes egiteko, eta norbanakoa eta kolektiboa jostatzeko eremuak dira. Kultura-ekitaldiak funtsezko beste gune bat dira gizartearentzat, eta askotariko uneak eta lekuak dira, non espektro zabal baten jokabideak adierazten diren: Azokak eta jaialdiak, hainbat arte adierazpen erakusteko eta adierazteko, kontzertuak eta gaueko ekitaldiak. Horietan guztietan jokabide sexistak eta mota askotako erasoak azaldu daitezke, nahiz eta zenbait ekitaldiren ezaugarriek erasoan maiztasuna handitzen laguntzen duten.*

Jarduera batzuen izaera masiboak, adibidez, erasoak sarriagoak izan daitezzen eragin dezake, bai eta antzemateko eta salatzeke zailagoak izan daitezzen ere. Alkoholaren eta drogen kontsumoa ekitaldiaren ezaugarriekin lotzen den ikuskizunetan ere eragina izan dezake. Hala ere, eraso gehiago egotea eragiten duten ezaugarriek ez dute esan nahi egun argiz edo jende gutxiago biltzen den ekitaldietan gertatzen ez direnik. Horregatik, eraso matxisten egiturazko izaera azpimarratzen dugu, kultura-programazioetako elementu bereziak alde batera utzi gabe.

Beren hizkera eta jokabide kodeak sortzen dituzte arte eta kultura adierazteko moduek; hala bada, badira beren formatuan eta edukian konpromiso feminista duten ekitaldiak (zinema eta literatura zikloak), edo jakintzat ematen da errespetuzko jokabidea berezkoa dutela musika ekitaldiak eta ekitaldi hori egiten den eremuak, adibidez. Badira elkartruke soziala eta kulturaren adierazpide espezifikoaren zabalkundea sustatzen dituzten eguneko feriak eta jaialdiak, eta badira beren etxola partikularretan erakusketak hartzen eta espazio komun bat partekatzen dutenak. Badira toki mailako jaialdiak eta badira nazioarte mailako jaialdiak, barruti itxiak gainditzen dituztenak hiri oso bat edo zati bat hartzeko, eta badira askotariko pertsonak, zenbaitetan kontrako espektatibak dauzkatenak, biltzen dituzten ekitaldiak.

Azken horiek, adierazpen artistikoak jai giroan gertatzen baitira, rol eta jokabide batzuk urratzeko uneak eta lekuak dira izaera jendetsuak, gauarekin lotzen den permisibitateak eta alkoholaren eta drogen kontsumoarekin lotzen den kontrolik ezak ematen duten anonimotasunean babestuta. Hasiara batean, ekitaldi horiei begira pentsatu zen gida honen lehen zirriborroa egitea, urteko hainbat hilabetetan eta, bereziki, udako hilabeteetan herri eta hiri guztietan egiten diren jaiekin partekatzen dituzten ezaugarriengatik. Gainera, sakonago aztertu dira halakoak.

---

<sup>1</sup> Guilló Arakistain, Miren (koord.) (2016) Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak.

Proposamen hau lantzeko, bereziki bi txosten kontuan hartu dira: Emakundek 2021ean argitaratutako Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak eta Salud y Comunidad Fundazioaren Noctámbul@s Behatokiaren txostenak, hirugarrena eta 2015-2016 epeari dagokion azkenekoa. Era berean, eraso matxisten prebentziorako hainbat udal kanpaina, eta eremu berezietako desberdintasunei buruzko zenbait azterlan gainbegiratu dira. Aztertu diren beste material batzuk batik bat Erresuma Batuko, Kanadako eta Ameriketako Estatu Batuetako musika jaialdietarako eta beste ekitaldi masibo batzuetarako landu direnak dira .

Azterlan horietan eta jendetza biltzen duten kultura ekitaldietan emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko kanpainetako batzuetan, nabarmendu egiten da jai eremuetan gizonen portaera hegemonikoa (mugarik gabe eta beste pertsona batzuen nahiak eta premiak aintzat hartu gabe adierazten dena) dela, oraindik ere, emakumeek normalean betetzen duten araua, edo, gutxienez, horretan saiatzen direla; jakin badakitenez eremu hori gizonak finkatutako tradizioak dituen eremua dela, emakumeek, batez ere adin tarte batean, babesteko estrategiak bilatu ohi dituzte –eskuarki euren artean–, eta azken urteotan testuinguru hori euren jostatzeko moduak eta premiak aintzat hartuko dituzten politika inklusiboekin aldatzeko eskatzen ari dira.

Emakumeenganako jokabide maskulino kaltegarrienen artean indarkeria matxistaren normalizazioa eta are hutsaltzea dago, jaietan ohikotzat eta saihestezintzat hartzen baita, areago hainbat egunez luzatuta egunerokotasuna urratzen duten edo eremu publiko/ pribatuetan bizikidetzaz sartzen duten ekitaldietan.

Jaiak beren formatuan askotarikoak badira ere, horiei buruzko azterlanetan nabarmendu egiten da generoaren sinbologiak jai guztietan duen garrantzia eta zereginen eta jostatzeko moduen banaketa, emakumeak eta gizonak bereizirik. Beste batzuek, esate baterako inauteriek, eguneroko bizikidetzarekin haustea ahalbidetzen dute, permisiboagoak dira jokabide urratzaileekin. Kultura ekitaldi batzuk, batez ere musikarekin lotutakoak –emanaldiak, makrokonzertuak, jaialdiak eta ezaugarri bertsuko beste jai mota batzuk– beren arau bereziak dituzten eremuetan hartzen dira.

Jai giroetan, batez ere alkoholaren eta drogen kontsumoa dibertimenduaren alderdi normalizatu gisa gertatzen denean, mota desberdinetako erasoak gertatzen dira, ohikoenak indarkeriazko sexu erasorik ez dakartenak dira, baina bai, ordea, jazarpenezko jokabideak edo jokabide tematiak dakartzatenak, onartuak ez izan arren eta are baztertuak izan arren, nagusiki gizonek egiten baitituzte halakoak. *“El baboseo”*<sup>2</sup> (lerdea dariola), halaxe esaten baitiote neska askok erasoaren esanahiaren inpaktua arintze aldera, hau da, behin eta berriz ekitea, zirriak egitea, nahi ez den kontaktu fisikoa, jende gutxi dabilen lekuetatik jarraitzea, gai horri buruz egindako azterlanetan nahi ez diren gauzak direla adierazten dute gazteek, baina jai eta aisialdiko guneetan, batez ere gauez, gerta litezkeen egoerak direla.

Gizarteak, oro har, uko egin behar dio indarkeriaren normalizazio hori onartzeari, eta aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko eskubidea aldarrikatu behar du edozein modutan ere, pertsona guztientzat, aniztasuna eta aisialdia eta kultura bizitzeko modu desberdina aldarrikatuz, betiere elkarrekiko errespetuan eta guztion eskubidean oinarrituta. Espazio publikoa eta jaietako aisialdia tradizioz gizonezkoen espazioak izan dira, baina horrek ez du esan nahi ezin direnik aldatu, gero eta espazio mistoagoak baitira; emakumeak ez dira “inbaditzaileak”, eta beraz, ez dira haienganako jokabide oldarkorrek normalizatu behar, bai ordea indarkeria matxistarik gabeko aisiarako alternatibak eraiki.

*“Nagusiki, botere ariketa dira emakumeen aurkako indarkeriak, eta eraso sexistak (hitzezko jazarpena, iraintzea, etab.) eta sexu eraso larrienak biltzen ditu. Adierazpen horiek guztiek indarkeriazko continuum bat sortzen dute, eta guztiak hartu behar dira askatasunaren aurkako atentatu gisa. Behin eta berriz ekitea edo hitzezko jazarpena bezalako ekintzak praktika, sinesmen edo estereotipo matxistekin lotzen dira, eta ohikoenak dira aisialdiko testuinguruetan; horregatik, neurri handi batean, orain arte normalizatu egin dira eta ikusezin bihurtu”*<sup>3</sup>.


Kultura-ekitaldi guztietan, artistez gain, beste pertsona batzuek ere posible egiten dituzte, eta horien artean ere ikus daiteke emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna. Musika-industriako lau elkarte sektorialetako enpresei (APM, ARTE, AEDEM eta PROMUSICAEri) egindako inkestan adierazten denez, lehendakaritza-karguak emakumeek % 37an betetzen dituzte, eta gizonek, berriz, % 63an. Bestalde, Espainiako musika-industriaren lehen genero-azterlanak sektoreko emakumeen diskriminazioa, prekaritatea eta gain-kualifikazioari buruzko informazioa azpimarratzen du (Cadena Dial eta MIM, Musika-Industriako Emakumeen Elkarte, 2021):

---

<sup>2</sup> Modu horretan kalifikatu zituzten 2021ean eraso sexualei buruz egindako ikerketan parte hartutako neskek jai guneetan gertatzen diren zelata eta jazarpenezko jokabide horiek:  
[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm\\_guias\\_publicac\\_folletos/es\\_def/adjuntos/pub\\_agresiones.sexuales.como.viven.cas.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_guias_publicac_folletos/es_def/adjuntos/pub_agresiones.sexuales.como.viven.cas.pdf).

<sup>3</sup> Protokoloa, festaguneetan eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan eraso sexistei aurrea hartzeko eta haietan arta emateko. Iruñea, 2019.





Cadena Dial eta MIM, Musika-Industriako Emakumeen Elkarte, 2021

Emakumeen eta gizonen ordezkartzan dagoen desoreka-giro honetan ere lanean jarraitu behar da, eta kontuan hartu jai ekitaldietan dauden emakume langileek jasan dezaketela indarkeria matxista hori. Beraz, behar-beharrezkoa da ekitaldi horien antolatzaileek indarkeria matxistatik gabeko espazio seguruak sortzeko konpromisoa hartzea eta emakumeen esperientziak kontuan hartzea, haien aurkako era guztietako erasoei aurrea hartzeko eta behar bezala jarduteko.

Ez dugu atal hau amaitu nahi adierazi gabe sektorean ekimen garrantzitsuak izan arren, oraindik ere indarkeria matxista motak eta prebalentzia zehaztea ahalbidetzen duten diagnostikoak falta direla, eta ezin direla soilik salaketetan oinarritu, jakina baita salaketak gutxiengoa direla. Beharrezkoa da espazio bakoitzaren ezaugarriak sakon eta osorik berrikustea.

## 2. Aurrerapenak legegintzan

Legediak eta araudiak kontuan hartzen dute errealitate hori, eta kontuan hartu beharreko neurriak proposatzen dituzte kultura ekitaldiak antolatzen dituzten entitateek konpromisoa har dezaten neurri zehatzak aplikatzeko eta ekitaldi horien antolakuntzan eta jardueran zehar gerta litezkeen indarkeria matxista kasuak prebenitzeko eta, hala badagokio, artatzeko ekintzak eta tresnak garatzeko.

Honako araudi honi egiten zaio erreferentzia:

- **1/2022 Legea**, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen bigarren aldaketa egitekoa. Hauxe dio 52. Artikuluaren 2. zatian: *“Ezertan eragotzi gabe lege honetan aurreikusitako gainerako prebentzio-neurriak, euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, koordinaturik eta berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko eta ezabatzeko helburuarekin, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen eta gizonen jokamolde soziokulturaletan aldaketak sustatzeko, eta, hartara, emakumeen gutxiagotasunaren eta mendekotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen rol estereotipatu batean oinarritutako aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta jardunak ezabatzeko”*.
- **3/2007 Lege organikoa**, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa. Hauxe ezartzen du bere 48. Artikuluan: *“Enpresek sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan baldintzak sustatu beharko dituzte, eta prozedura bereziak ezarri, horiek prebenitzeko eta halakoak jasan dituztenen kasuan beharreko salaketa eta erreklamazioak bideratzeko”*.
- **Autobabesteko Oinarrizko Araua** (2007ko martxoaren 24ko EAOn argitaratua). Autobabesteko eta larrialdietarako plan bat edukitzeko beharra ezartzen du. Ezinbestekoa da indarkeria sexualaren aurkako borroka plan horretan aintzat hartzea. Izan ere, indarkeria sexuala segurtasun arazo larria da, bertaratuei eta lan kontratadun langileei eragiten die, eta arreta eta baliabideak eskatzen ditu.
- **112/2010 Dekretua**, abuztuaren 31koa, Ikuskizun publikoei eta aisialdiko jardueri buruzko Erregelamendua onartzen duena. Arau hauste larritzat du *“beste ikusle, artista edo establezimenduko langileenganako errespeturik gabeko jokabidea”*.

### 3. Erasoak kultura ekitaldien esparruan

Askotarikoak dira kultura ekitaldiak, eta batzuk oso jendetsuak dira artista edo sortzaile bat baino gehiago aurkezten direlako eta ordu batzuk (kontzertuak) edo hainbat egun (kultura azokak, jaialdiak) iraun dezaketelako. Doako eta ordainpeko ekitaldiak ere bereizi behar dira, bertaratutakoen eta langileenganako portaeran eragin dezakeen beste elementu bat baita.

Ekitaldi jendetsuek hainbat arrisku gune dituzte, hala nola agertokitik gertu dauden espazioak, atsedenlekuak eta bertaratutako pertsonen beharrak asetzeko egokitutako beste espazio batzuk, horietara iristeko bideak eta garraio publikoa, batez ere leku baztertuetan edo hiriaren kanpoaldean egiten direnean. Ondorioz, indarkeria matxistaren forma desberdinak dira (batez ere erasoak, sexu jazarpena edo jasateko mehatxua) emakumeak espazio publikoetan berdintasunean sartzeko muga nagusiak.


Makrokonzertuak eta jaialdiak historikoki izan dira gizonak nagusi izandako lekuak, irudi maskulinoa nonahi nagusitu izan da, baita gizonen nahietara egokitzen den edo ustez egokitzen den guztia. Artisten hainbat plataforma dira esperientzia maskulinoak nagusi diren ekitaldi ereduak –antolatze era, parte hartzaileak eta talde nagusien aukeraketa– zalantzan jartzen dutenak sexismoaren aurrean prebentzio neurriak hartu beharko lirarteke kultura espazioetan berdintasunean aurrera egiteko, eta, gida honen gaia ez bada ere, etorkizunean kontuan hartu beharreko elementua da; izan ere, kultura eta aisialdia programatzeko modua aldatzen ez bada, kultura ekitaldietan eta batez ere ekitaldi jendetsuetan eraso sexualak eta sexistak eragozteko neurriak ez dira emakumeentzat espazio arriskutsuak sorrarazten dituzten jazarpen jokabide horiek ahalbidetzen dituen testuinguruaren mamira iritsiko. Eta OBS Business School-ek ematen duen datuaren arabera (2016)<sup>4</sup>, **emakumeak dira Espainian halako jaialdietara joaten diren pertsonen % 58 inguru.**

---

<sup>4</sup> <https://es.slideshare.net/DikraRedondo1/informe-el-hit-de-los-festivales-de-msica-en-espa>

Ekitaldi horietara joaten den jendeari dagokionez, lehendik ere azaldu dugunez, azken estatistikek erakusten dute azken urteetan esponentzialki emendatu dela jaialdietara joaten den emakume kopurua, baina horrek ez du esan nahi ekitaldi horiek ikus-entzuleak aldatzen diren abiadura berean eraldatu direnik, izan ere, oso espazio maskulinizatuak dira oraindik, ez seguruak emakumeentzat, orduak eta orduak eman baititzakete nagusi den maskulinitasuna ezaugarritzen duten jokabideen eta harreman moldeen mende, guzti-guztiak normalizatuak eta, areago, indarkeria matxista normalizatzen, justifikatzen edo gutxienera eramaten duten mezuekin eta sinboloekin goretsiak. Indarkeria sexualaren aurreko pertzepzio sozialari buruzko txostenaren arabera, indarkeria sexualeko egoera gehienak gertatzen diren agertokiak dira jaialdiak.

Behatokiak egindako azterlan bat iturritzat hartuta, **indarkeria sexual motaren bat jasan dute emakumeen % 57k eta gizonen % 4k**<sup>5</sup>.



*Respuesta múltiple (se permitan dos respuestas).*

Gainera, gaueko aisialdiko guneak, eta bereziki jaialdiak, emakumeengana hurbiltzeko guneak izan daitezke alkoholaren edo drogen kontsumoaren eraginpean daudela aprobetxaturik, eta eraso sexuala izaten amaitu dezakete espazio edo garraio publikoan edo bizileku batean.

Musika jaialdien testuinguruan dagoen beste arazo handi bat da emakumearen irudia publizitaterako erakargarri gisa merkantilizatzea eta kosifikatzea. Gizarte mailan onartua den praktika horren aurrean, gogorarazi behar da emakumeen irudi iraingarri edo diskriminatzailea erabiltzeko debekua, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotzen den legez.

Azaldutako guztiagatik, aisialdiko gune horietan emakumeen aurkako indarkeria legitimatzen duten kliseak eta sinesmenak zalantzan jartzeko lan egin behar da.

<sup>5</sup> Fuente: [https://www.drogasgenero.info/wp-content/uploads/5InformeNoctambulas\\_2017-18.pdf](https://www.drogasgenero.info/wp-content/uploads/5InformeNoctambulas_2017-18.pdf)

## 4. Guztiok gozatzeko gune seguruak eraikitzen

Gida honen helburua da kultura guneak guztiontzat seguruak izateko jarduerak gomendatzea. Kultura ekitaldiak, horien artean era guztietako jaiak, herri baten adierazpideak dira, eta gure herriak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioak sustatu nahi ditu gune publiko eta pribatu guztietan, balio hori aintzat hartu ez duen tradizioa dugula eta kulturaren bidezko sinbolismoan desparekotasun arrasto asko adierazten direla jakinda ere.

Gune seguru horiek eraikitzeke lehen baldintza da aitortzea badirela gune seguruak izan daitezkeen laguntzen ez duten forma, espazio eta portaera batzuk. Diagnostiko horrek beste bide batzuk eraikitzen laguntzen du, eta hori kulturaren munduko erakundeek eta elkarteek planteatu behar duten berehalako zeregina da. Datozen orrialdeetan, kultura ekitaldietan, batik bat jendetza biltzen duten musika ekitaldietan, gerta daitezkeen indarkeria forma batzuk zehaztuko ditugu. Azken hauetan jarri dugu arreta bertan parte hartzen duen jendetzagatik eta duten inpaktu mediatiko handiagatik, baina honek ez du esan nahi bakarrik era honetako ekitaldietan dagoenik espazio seguruak sortzeko beharra.

### 4.1. Indarkeria formak

Indarkeria matxistak indarkeria hori jasaten duten emakumeengan duen eragina neurtzea beti erraza ez bada ere, garrantzitsua da argi eta garbi bereiztea zer modutan aurkez daitezkeen indarkeria forma horiek, jarduteko eta erantzuteko neurriak proportzionalak izan daitezkeen eta biktimen erantzuteko gaitasunarekiko errespetuzkoak izan daitezkeen, biktima horiek berriz ez biktimizatzeko.

Beraz, eraso sexual larrienaren formak bereiziko ditugu. Gainera, biktimek zigor bidez salatu ditzaketan delitu egitateak dira horiek.

**Eraso sexuala:** *Zigor Kodearen 178. artikulua.*

*"Norbaitek, indarkeriaz edo larderiaz, beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurka atentatu egiten badu, orduan, sexu-erasoaren erantzule gisa, urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio".*

**Bortxaketa:** *Zigor Kodearen 179. artikulua.*

*"Sexu-erasoa maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzea denean, erantzuleari, bortxaketaren errudun gisa, sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio".*

**Sexu abusua:** *Zigor Kodearen 180. artikulua.*

- 1. Norbaitek, indarkeria, larderia eta adostasunik gabe, beste pertsona baten sexu-askatasun edo ukigabetasunaren aurka atentatu egiten duten egitateak gauzatzen baditu, sexu-abusuaren erantzule gisa, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra edo hemezortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio.*
- 2. Aurreko paragrafoaren ondoretarako, adostu gabeko sexu-abusutzat hartuko da konorterik gabe dauden pertsonen aurkakoa edo euren buru-nahasteaz abusatuz gauzatzen dena, baita botikak, drogak edo horretarako egokia den beste edozein substantzia natural edo kimikoak erabiliz biktimaren borondatea deuseztatuz egiten dena ere.*
- 3. Erantzuleak biktimaren adostasuna lortzen badu, biktima horri askatasuna murrizten dion nagusitasun-egoera nabariaz baliatuz, orduan, erantzuleari zigor berbera ezarriko zaio.*
- 4. Aurreko kasu guztietan, sexu-abusua maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzea denean, erantzuleari lau urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.*

Eraso forma horiek delituak dira eta, delitu direnez, argi eta garbi heldu behar zaie aplikatzen diren prebentzio mekanismoetan. Badira testuinguruaren berezko beste jokabide batzuk, Zigor Kodean argi eta garbi tipifikatuta ez dauden arren edo normalizatuta dauden arren, erasotzeko formak ere badirenak, eta horiek prebenitu egin behar dira eta, hala badagokio, gertatu ahala jardun.

- Sexu jazarpena ez dago tipifikatuta zigor kodean, salbu eta laneko, irakaskuntzako edo zerbitzuak emateko eremuan gertatzen bada; hala ere, emakumeek jai ekitaldietan aurre egin behar izaten dioten jokabidea da. Orduan, jai giroko **sexu jazarpena** nahi ez diren sexu izaerako hitzezko edo hitzik gabeko portaerak direla joko da, pertsonen duintasunaren aurka egiteko asmoa edo ondorioa duten portaerak, bereziki aurkako, makurrarazteko, umiliatzeko edo iraintzeko giroa sortzen denean.

Definizio horretan sar daitezkeen jokabideak dira nahi ez diren hurbilketak, esplizituki edo zeharka baztertu daitezkeenak, solasaldi erabat sexualak edo ez, baina nahi ez diren hurbilketak xede dutenak, mezuak bidaltzea, zirriak egitea eta eskatu ez diren eta ongi etorriak ez diren pertsonen arteko beste jokabide batzuk.

Gainera, badira beste jokabide batzuk edo kolektiboak direnak edo erasotzailea argi eta garbi identifikatzeko aukera ematen ez dutenak, jendetzaren artean egiten direlako hain zuzen ere eremua bera babesteko zailtasuna aprobetxaturik. Indarkeriatzat hartzen ez diren jokabideak dira dantzarekin lotuta daudelako, esate betarako:

**Moshing:** pertsonen arteko bultzadak agertokiaren aurreko aldean artistengana hurbiltzeko.

**Pogo:** jauziek eta bultzadek ezaugarritutako dantza mota.

MYM –Emakumeak eta musika–<sup>6</sup>. Musika jaialdietan izaten diren indarkeria forma ohiko batzuk identifikatu dituzte, soilik gisa horretako ekitaldietan gertatzen ez badira ere:

- Piropoak, emakumeenganako **hitz sexistak**.
- **Oihu sexistak artistei** agertokian daudenean.
- Emakumezko teknikarien, zerbitzarien edo marketako ordezkarien aurkako **jazarpena eta hitz sexistak**.
- **Egoera zaurgarrian dauden emakumeen aurkako abusuak eta bortxaketak**. Jende pilaketek, ingurune ilunek eta drogen kontsumoak abusu egoerak ahalbidetzen dituzte.
- **Indarkeria fisikoa**.

---

<sup>6</sup> <https://mujeresymusica.com/manifiesto-mujeres-musica/>

Alkoholaren eta drogen kontsumoa jaiaren zati den **giroan** gertatzen dira jokabide horiek guztiak, eta beraz erraza da edariak lortzea eta ez da txikia sumisio kimikoaren bidez eraso bat jasateko arriskua, eta, bai jokabide horietako batzuk animatuz bai lekuko izatean isilduz, maskulinitasuna eta gizonen arteko konplizitatea nagusi diren giroan.

Eta ez dugu ahaztu behar jaialdiak eta, oro har, jai ekitaldiak oraindik ere emakumeen gorputzen **sexualizazio** karga sinboliko handiekin egiten direla, izan ere, halako presioa jasaten dute batez ere jendaurrean lan egin behar duten emakumeek modu jakin batean jantzita egon daitezen: gona laburrak, bularraldea agerian uzten duten kamiseta estuak, oinetako takoidunak, etab.

Noctuambul@s behatokiaren txostenek ere sexuaren araberako portaera desberdina antzeman dute zenbait ekitalditan erabili ohi diren alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoaren inguruan. Hala bada, argi eta garbi mozkortuta eta/edo drogatuta dauden gizonak emakumeentzat erakargarriak izateari uzten dioten bitartean, argi eta garbi mozkortuta eta/edo drogatuta dauden emakumeek erakarpen handiagoa izaten dute gizonentzat, eta sexu izaerako jazarpen eta indarkeria handiago baten itua izaten dira ez soilik gizakume baten aldetik, baita talde baten aldetik ere.

Zaugarritasuna, erakarpen gisa ulertuta, kezagarria da. Emakumeek badakite hori, eta horrexegatik sortzen dira defendatzeko estrategiak, nahiz eta horietako asko eta asko ez diren egokiak edo ez diren nahikoak gertatzen diren ekitaldi motarako.

Emitza eskasa izan dute alkoholaren edo drogen kontsumoaren debekuan oinarritutako indarkeriazko jokabideak prebenitzeko ildoak, eta horrexegatik, kontsumo arduratsuan jarri dira indarrak azken garaiotan. Era bertsuan, emakumeen jokabidearen kontrolean oinarritutako indarkeria sexualaren eta sexistaren prebentzioa ez da eraginkorra, eta horrez gain, ontzat ematen du era guztietako kultura ekitaldiez gozatzeko emakumeen mugikortasunaren eta askatasunaren murrizketa; horregatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartu behar zaio, gizabanakoek eta kolektiboak kultura eta jai ekitaldiak guztiontzat seguruak izango direla bermatzeko duten erantzukizunetik abiatuta, eta beren jokabideak ukatzean edo minimizatzean erasotzaileen zigorgabetasuna ez sustatzeko.



## 4.2. Arrisku guneak jaialdietan eta makrokontzertuetan

Emakumeek arrisku gunetzat dauzkaten eremu batzuk daude, eta arreta berezia jarri behar da horietan. Jaialdiek berezko dituzten gune horiek segurtasunean eta berdintasunean oinarritutako kultura ekitaldi bakoitzeko aurretiazko diagnostikoaren zati izan behar dutela azpimarratuko dugu berriz ere.

- **Kanpatzeko tokiak**  
Oso leku zabalak izaten dira, normalean argirik gabe eta non zauden adierazten duten orientazio punturik gabe. Gainera, behin sarrerako kontrola igarotzen duzunean, ez dute segurtasun mota bakar bat izaten.
- **Kontzertu gunearen eta kanpatzeko tokiaren arteko bidea**  
Kontzertu gunearen eta kanpatzeko tokien arteko bidea luzea izan daiteke, argi puntu handirik gabe egon daiteke eta, tartean, eremu ilun asko izan daitezke.
- **Dutxak**  
Segurtasunik gabeko lekuak, ingurunearen izaeragatik pertsonak arropa gutxirekin edo biluzik egon ohi direla. Emakumeenganako hitz eta jokabide bortitzak gertatzen dira.
- **Komunak**  
Jai batean baino gehiagoan izan dira erasoen agertoki komun sanitarioak. Gainera, komun horiek gutxi izaten direlako edo ezeroak, emakumeak prestatu gabeko lekuetara joaten dira, eta sarritan gertatzen dira jokabide arriskutsuak.
- **Backstage**  
Sarrera mugatua duen espazio hori ere eraso normalizatuagoak eta azaltzen zailagoak gertatzen diren agertokia izaten da, bertan sartzea prestigioaren sinbolo izaten baita ekitaldien antolakuntzan eskua duten pertsonen eta/edo artisten ondoan egokitzea dakarrelako.

## 5. Proposamenak

Azaldutako guztiagatik, jarraian proposamen sorta bat azaltzen da jaialdiak indarkeria matxistarik gabe gozatzeko guneak izan daitezen pertsona guztientzat.

### 5.1. Protokoloak sortzea

- Protokolo bat sortu behar da indarkeria matxistako kasuen aurrean prebentzio, arreta eta erantzun jarduerak biltzeko.
- Protokolo horrek hainbat neurri jasoko ditu, pixkanaka findu eta zabaldu ahal izango direnak eta era guztietako kultura ekitaldien antolakuntzan inplikaturako entitateentzat eta eginkizunen bat betetzeko gunea lagatzen zaien hirugarren enpresentzat konpromiso bihurtuko direnak.
- Protokoloak dena delako jarduerarako espezifikoa izan behar du, kontuan hartuko ditu ikus-entzuleen kopurua, egingo den espazioa eta erabilgarri dauden baliabide materialak eta giza baliabideak.
- Bertarutzen direnez gain, protokolo honek aintzat hartuko ditu kultura ekitaldietako langileak, hornitzaileak eta kolaboratzaileak, artistak barne.
- Protokolo honek arrisku gunetzat identifikatu diren espazio guztiak aurreikusi behar ditu.
- Prebentzioaren zati gisa, protokoloak klausula bat sartu beharko luke kultura taldeekin, hornitzaileekin edo mezenasekin egiten diren kontratuetan. Bertan egiaztatuko da jarduteko protokoloa ezagutzen dutela eta protokolo hori betetzeko konpromisoa dutela.

Horiez gain, protokoloak beste alderdi hauek aintzat hartu beharko ditu:

## 5.2. Prebentzioa

- Jazarpenaren aurkako autobus geltokiak sortzea (beharrezkoa bada) eta, inork eskatzen badu, kanpatzeko tokiraino laguntzeko programa sortzea, edozein motatako erasoak saihesteko.
- Jaialdiaren esparru osoan une bakoitzean non zauden adierazten duten seinale puntuak jartzea.
- Jaialdiaren esparruko kanpalekuetan segurtasuna eta argitasuna emendatzea.
- Eskumuturrekoak eta txapak sortzea (edo egoki irizten den beste edozein material mota) jai eremua sexismorik gabeko gunea dela zabaltzeko. Gainera, material horietan QR kode bat egokitu daiteke, eta kode hori eskaneatuta informazio gehiago jasotzeko edo eraso bat jasanez gero zer egin jakiteko eskuragarri dauden baliabideen berri eman daiteke.
- Ekitaldiaren publizitatearen bidez (kartelak, prentsa oharrak...). protokoloaren zabalkundea egitea, zertan datzan azaltzea eta hura betetzeko obligazioa dagoela jakinaraztea.
- Eta garrantzitsua izango da eraso sexisten eta matxisten aurrean erantzun kolektiboa eta herritarren erantzuna sustatzen duten hashtag-ak sortzea eta sare sozialen bidez zabaltzea.
- Eraso sexisten eta matxisten aurreko arbuioa ageriko egiten duten posterrak eta seinaleak sortzea. Poster eta adierazle horiek bereziki jarriko dira "arriku" guneetan.
- Kanpalekuetan espazio fisiko bat egotea informazioa, eskumuturrekoak, txapak eta erasoen aurkako prebentzioa jasotzen duten eta baliabideen berri ematen duten artikulu guztiak banatzeko.

## 5.3. Detekzioa

- Formakuntza antolakuntzako arduradunei eta ikus-entzuleekin harremanetan dauden langileei, aisialdiko guneetan eta jai ekitaldietan indarkeria matxista normalizatu ez dezaten, indarkeria mota hori eragozteko konpromisoak benetako oinarriak izan ditzan, protokoloak ezagutu ditzaten eta ezagutarazi eta betearaz ahal izan ditzaten.
- Formakuntza hori –eskolak emateko gaitasun teknikoa duten agenteen eskutik emana–, pixkanaka zabaldu beharko zaio edozein motatako kultura ekitalditan parte hartzen duen orori.

## 5.4. Arreta

- Telefono zenbaki bat gaitzea (edo daudenak ezagutaraztea) indarkeria matxista edo eraso motaren bat gertatuz gero deitu ahal izateko.
- Espazio fisiko bat sortzea, gune seguru gisa identifika daitekeena, arreta jasotzeko espazio seguru eta intimoa izango duena, egoera horiek gertatuz gero bertara joan ahal izateko.
- Espazio fisiko horrek berehala eta epe laburrean beren onera etortzeko gune bat izan dezake bertara joaten diren emakumeentzat.
- Jai giroan biktima izandako emakumeei arreta emateko formakuntza espezifikoak ematea telefonoz erantzuten dutenei edo informazio guneetan lan egiten dutenei, baita espazio seguru hori kudeatzen dutenei ere.
- Betiere errespetatzea emakumeek gertaeren aurreko salaketa polizialaren inguruan hartzen duten erabakia, kontuan izanik prozesu horiei aurre egitea zaila dela eta, erasoak gertatu eta berehala, ez direla beti garbi edukitzen zer gertatu den eta zer egin nahi den.
- Ahal badu, hark adierazten duen moduan lagunduko zaio, eta ahal den neurrian, bere gertuko taldearen, lagunaren edo laguntzen dion pertsonaren laguntzarekin.
- Zauriren bat badu edo arreta sanitarioa behar badu, ekitaldiko eremuko lehen sorospenetarako gunera eraman daiteke halakorik gaitu bada, edo gertuen dagoen ospitalera, zeinarekin aldeztu aurretik larrialdietarako dispositibo bat itunduko den, bereziki ekitaldi jendetsuak baldin badira.
- Erasoaren eragina arindu dezaketen aurreneko laguntza psikologikoak ematea.
- Emakumea espazio seguruan suspertzen laguntzea, betiere ekitaldiaren esparrutik kanpoko arretarik behar ez badu, bere kabuz moldatzeko gai den arte, edo hark edo arduradunek identifikatutako beste espazio seguru batera joaten lagunduko dion pertsona edo pertsona taldea identifikatu arte.

## 5.5. Erantzun publikoa

- Biktimarekin dena delako gertaeren aurrean erantzun publiko motaren bat ematea nahi duen adostea.
- Jaialditik berehalakoan botatzea edozein eraso matxista egin duen pertsona.
- Erantzun publiko motak:
  - Eraso motaren bat gertatuz gero, kultura ekitaldia etetea eta oholtzara komunikatu labur bat irakurtzera igotzea.
  - Eraso bat gertatu berri dela adierazten duen iragarkia.
  - Dagokion kultura ekitaldiaren balorazioan hartutako prebentzio eta arreta neurriak, horien aplikazioa eta beharrezkoak izandako beste esku hartzeak adieraztea.


## 5.6. Berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko jokabide kodeen lanketan aurrera eginez

- Berdintasunezko jokabideak, indarkeria matxistarik gabeak, modu askotan adierazten direla ulertuta, aintzat hartu behar dira sektore bakoitzean normalizatuenak direnak; horretarako, komenigarria da beren ezaugarrietara egokitzen diren berariazko diagnostikoak egitea.
- Txiki-txikitatik berdintasunean hezteko premia kontuan izanik, behar-beharrezkoa da gogoeta hau arte ederretako ikastetxeetan eta akademietan txertatzea, ikasleak jabetu daitezten euren lanak ere eragin handia duela berdintasunaren eraikuntzan, bai maila sinbolikoan bai pertsonen arteko harremanetan ere.
- Behar-beharrezkoa da kultura ekitaldi guztietan parte hartzen duten artistak ere inplikaturiko dituzten jokabide kodeak lantzea, eta hori adierazpen askatasunaren eta jokabide onartezinen arteko eztabaidatik abiatuta landu behar da.
- Era berean, agertokian eta atzealdean gertatzen diren jokabideak aztertzen hasi behar dira, berriz ere adierazpen askatasunaren eta jokabide onartezinen arteko eztabaidatik abiatuta, puntu horietan ere prebenitu beharreko jokabideak izaten baitira.
- Ikus-entzuleak ere aktore garrantzitsuak dira kultura ekitaldietan, eta beraz, berariazko mezuak eta kanpainak landu behar dira errespetuz, berdintasunez eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe jokatzeko konpromisoa har dezaten.

Balorazio horiek eta, oro har, era guztietako kultura ekitaldien antolakuntzan abian jarri diren dispositibo guztiak kontuan hartu behar dira hurrengo programazioetan, eta beharrezkoa bada, laguntza eta aholkularitza teknikoa eskainiko da enpresa antolatzaileek prebentzio, jarduera eta erantzun publikoko protokoloak ekitaldi bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitu ahal izan ditzaten.

# ERANSKINA: Prebentzio kanpainak ERRESUMA BATUAN, AEBetan eta KANADAN

- Kanpaina (Erresuma Batua, 2017)
  - <https://aiforg.com/aifs-safer-spaces-at-festivals-campaign/>
  - <https://aiforg.com/wp-content/uploads/Charter-of-Best-Practice-Final.pdf>
  - <https://aiforg.com/wp-content/uploads/PRESS-RELEASE-AND-CASE-STUDIES-FINAL.pdf>
- Festival Safe kanpaina (Erresuma Batua, 2022): :  
<https://www.festivalsafe.com/information/safer-spaces>
- #HereForTheMusic campaña (AEB)  
<https://www.callingallcrows.org/hereforthemusic>
- Bonnaroo Music and Arts Festival (AEB)
  - <https://youtu.be/ak5a3pL5Aj4>
  - <https://twitter.com/Bonnaroo/status/1097523442755297280>
- Coachella (AEB) <https://coachella.com/every-one/>
- Lollapalooza (AEB) <https://www.lollapalooza.com/safety>
- Riot Fest (AEB) <https://riotfest.org/riot-fest-harassment-policy/>
- Summerfest (AEB) <https://www.summerfest.com/safety/>
- Pitchfork Music Festival (AEB, 2017)  
<http://2017.pitchforkmusicfestival.com/harassment-policy/>
- Hebridean Celtic Festival (Eskozia) <https://www.hebcelfest.com/policies/sexual>
- City Folk Festival (Kanada)  
<https://cityfolkfestival.com/cityfolk-festival-policies/non-discrimination-harassment/>



**EUSKO JAURLARITZA**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES